Campo & Ochandiano

Aholkularitza Juridikoko arduraduna

Lanpostuaren egitekoa

BBKri aholkularitza juridikoa ematea, Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzaren mende zuzenean, arriskuak identifikatuz eta erakundearen jardueraren segurtasun juridikoan lagunduko duten konponbideak proposatuz.

Funtzio nagusiak

- Kontratuak, akordioak eta hitzarmenak egitea eta berrikustea, arriskuak identifikatuz eta alternatiba juridiko egokienak proposatuz.
- Kontratuei buruz aholkatzea, BBK-k hirugarrenekin egindako eragiketa, proiektu eta akordioetan.
- Korporazioko proiektuak eta ekimenak juridikoki aztertzea, eta arriskuak prebenitzeko edo minimizatzeko neurriak proposatzea.
- Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzarako eta gainerako arloetarako txostenak eta ohar juridikoak egitea.
- Lege- eta jurisprudentzia-berrikuntzen jarraipena egitea eta BBKn duten eragina baloratzea.
- Bere ardurapean dagoen taldearen eta kanpoko zerbitzu juridikoen lana koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Kide anitzeko organoen erabakien aktak eta ziurtagiriak prestatzeko laguntza juridikoa ematea.
- Sailaren irizpideak, kontratu-ereduak eta prozedurak homogeneizatzea, eta BBKren zeharkako proiektuetan parte hartzea.

Beharrezkoa da:

- Zuzenbideko lizentziatura edo gradua.
- Gutxienez 5 urteko esperientzia enpresa-aholkularitza juridikoan, egiaztatutako esperientziarekin kontratazioan, Zuzenbide Zibilean eta Merkataritza Zuzenbidean, akordioen negoziazioan eta garrantzi bereziko gai juridikoen ebazpenean.
- Zuzenbide Zibilari, Merkataritza Zuzenbideari eta kontratazioari buruzko ezagutza sendoak.
- Irizpide propioa, autonomia, aztertzeko gaitasuna, lidergoa eta erabakiak hartzea
- B2 gutxieneko euskara-maila.

Honako hauek baloratuko dira:

- Masterra edo graduondokoa: Zuzenbide Zibila, Merkataritzakoa, Enpresakoa edo antzekoa.
- Esperientzia kanpoko talde edo zerbitzu juridikoak koordinatzen.
- Fundazioen eta sozietate-zuzenbidearen araubide juridikoa ezagutzea.
- Ingelesaren ezagutza (B2 maila)

Berehalako laneratzea, kontratu mugagabea eta lehiakorra den ordainsaria **eskaintzen dira**, hautagaiaren mailari eta esperientziari egokitua.